


Urteero bezala, aurten ere Barcelona-ko Herri Etxeak abestaldean jaiak eratu ditu, bai Espainia-ko bai beste zenbait tokietako koralekin. Uriko enparantzetan abestu dituzte beren kantuak, gauen isila mintzaera guzietan apainduaz.

Katalana esteta da, ederraren gose, eta urteeroko "la Mercè" jaietarako gonbidatu ohi ditu kantari-taldeak. Alemanian, Frantzia eta beste erresumetako kantarien artean, euskaldunak ere etorri zaizkigu, geheineta gertatu den arabera.

Gazteiz-ko "Iradier" taldea ere etorri zaigu, baina oraingoan lehenik aurten deitua izan den "Lartaun" koralaren zuzendariarekin mintzatuko gera. Jon Oñaitibia jaunak atseginez hartu dit elkarrizketarako nere proposamendua. Eskerrak nere ta zuen partetik.



Oiartzuar «Lartaun» taldea Barcelona-

—Nolatan etorri zerate Oiartzundik Barcelona-raino?

—Erriko Etxeak deituta etorri gera. Abestaldean jaietara ekarri gaituzte, larunbat-igandeetan kanta dezagun. Horrezaz gain beste zerbaite ere egin dugu: hemengo euskaldunnei zerbaite eskeini nahi genien, eta gure kantu-dantza ikuskizuna emango dugu berentzat.

(Esan dezadan ikuskizun asegarria eman digutela, gure folklore agergarri fina).

—Nola bete duzue hemengo zuen pograma?

—Gure ekinaldiak —euskaldunei emango zaiena aparte— bi plazetan izan dire, eta jaialdion azkeneko guzien ekitaldian guk, oiartzuarrok, bakarrik kantatu ditugu bi abesti, "Haurtxoa seaskan" eta

"Agur, Zuberoka". Oso ongi hartuak izan gera. Eratzailleak ere gustora gelditu dire esan digutenez.

—Zer da, ba, zuen "Lartaun" taldea?

—Oiartzun-en beti izan da abesteko zaletasuna; baina aspalditxotik, organista zahartu delako-ta, ez genuen talderik, eta Ameriketatik heldu nintzanean, ikusi nuen horren beharra ba zela, eta taldea pizten hasi ginan, baina erakunde berria egin genuen: gazteei deitu eta solfeoa erakutsiaz ekin genion lanari. Piskaka-piskaka eraman zen lana eta zimentarriak ongi jarrita.

—Eta oiartzuarrek bakarrik zerate taldean ala beste herrietatik ere bai?

—Ia denak Oiartzun-goak gera, baina ba ditugu bi errenderiar eta



elkarrizketa: Joseba Intxausti eta Jon Oiñatibia

di donostiar ere. Gainerakoak —txistulariak eta denak— oiartzuarrak dire. Jakina, gurekin etorri den dantzari-taldea, "Alkartasuna", pasaitarra da; gure euskal-show hori egiten laguntzen digute eta bestelako edozein ikuskizunetan ere, dantzariak behar ditugunean, berekin elkartzten gera.

AMETSAK ETA ERAGOZPENAK

—Taldea ederra bildu duzue. Zeintzuk dire orain zuen asmoak?

—Oraindik ez gera euskal herri askotara heldu. Kantuz eta dantzaz, horietan gure folklorea zabaldu behar dugu bere bizitasun osoan. Ikusiko duzun bezala, folklorea emateko era berri bat da, antzerki modura.

—Asmoa baliotsua; baina hori dena betetzeko ez ahal duzue enpresa bat behar. Zeuok enpresa bihurtuko ote zinakete, beharbada dantza eta abesti klasikoak ere emanaz?

—Bataz beste, "Lartaun-ek" bakarrik 70 bat lagun izango ditu eta hoinbeste lagun eramaten baila da,

eta horrezaz gain dantzariak ba dire hamabost bat. Norik mantendu hoinbeste gizon eta sendi?

Bigarren erantzunaz. Folkloretik kanpora ere egin dugu zerbait. Joan den neguan Baiona-ko orkestorekin abestu dugu eta curten Oiartzun-en eta Iruina-n ere egingo dugu orkestra berarekin beste zerbait; Bordele-ko solistekin Beethoven-en Meza bat izango da.

—Eta gazte hauek zein eragozpen izaten dituzte irteeratarako? Lantegietako nagusiak ematen dute komeni litzaketen erreztasunik?

—Oraingoan gehienek etorri ahal izan dire, baina abeslari on batzuek ezin etorria izan dute eta txistulariak ere berdin. Zaila da baimena lortzea. Ikusi dugu irteera luze samar hauetan etxean gelditu beharrean aurkitzen direna.

—Orduan, zer esango zenuke? Nagusiek ez dute kultura-kezkarik, ez dire honetzaz arduratzen ala bai?

—Horretan, konturatu naiz, gizon otzak dire. Jaialdietan aurpegi atseginak ikusten dituzu, baina lantegietatik erreztasunak eman behar lirakenean, atzera egiten dute laister. Orduan beren lana bakarrik nahi dute; nik ulertzen dut, baina jokaera mingarria gertatzen da.

—Beste alde batetik, agintariengandik izan dezakezue laguntzarik, zertan da hori? Izan duzue horrelakorik?

—Ez.

—Eskatu ahal duzue?

—Ezta.

—Zergatik, ordea?

—Esperantzarik ez genuelako.

—Baina nondik duzue etsipen hori?

—Begira, Oiartzun-gi Herri Etxekoek ez gaituztela antzakotzat hartu nahi esango luke batek. Ez digute deitu ere egin herri-festetarako, gu geu eskeini bagintzaizkien ere. Ez dute inbait gure herri-lanaren baliarik ikusten. Geure herrian ez dugu aurkezpen hori egiterik izan, herbestean, Barcelona-n, egin dugu beraz.

—Eta aginte-sistema bat balitz hori? Zergatik onhartzen duzue sistema barnean lanegite hau. Ez ote litzake hobe zuen eginkizun hauek bertan ber autzi? Zuen kultura-ekintza honek ez ahal dio agintebide trakets bati iraupena ematen? Zergatik hari zerate honela ahalegintan?

—Nik uste dut, pertsona nahiz gi-

zartearentzat, lanari ekitea behar-beharrezkoa dela, eta ekintza hau betebeharrekoa da edozein egieretan. Herri bat ez diteke baldartu bere hobeagoztearen ekintzan.


—Urteak ere ba dituzu, gizon egina zera; bizitzaren eskarmenturik ere ba dezu. Bizi izan duzunetik politika-jokabide hori jaso ahal duzu? "Dena ala ezerez" politikaren kontrako zera, beraz?

—Bai, orixe da hain zuzen nere eritzia. Bakoitzean ahal duguntxo egitekoa da. Ahal duguna ez egiteko ez da aitzaki baliozkorik.

—Noizbehinka, gizartearen bidegurutzetan gertatzen dire halako egoera ezinonhartuak, zuzterretik bertatik gaiztoak direnak. Honelako batean aurkituko bagina ere, gizarte-sistema horren barnetik beste darrabilzkizuten zeregin hauetan lanegin behar ote litzake?

—Nik esango nuke, gizon nahiz talde batek lan egokirik egiten badi, azkenean horrek bere fruitu ona emango duela. Honegatik, urteak gaitzen ez dire utzi behar, denon hondamendirako izango litzake bestela.

Jon Oiñatibia-k hauetxek esan dizkigu. Gizon langille baten hitzek eta aholkuek bere lanaren indarra eraman ohi dute. Hitzez labur, egitez luze, esan da euskaldunoi buruz. Berriz ere beharko dugu izan leial ekintza beretik.



RADIO LOYOLA: PREMIO "ONDAS" 1970

A la hora del cierre de esta edición, recibimos con sumo placer la noticia de la concesión de los premios anuales "Ondas" para los programas radiofónicos más destacados. Entre los premiados figura Radio Popular de Loyola a la que se le ha otorgado el premio al mejor programa musical de ámbito local.

En este caso el galardón ha correspondido a una entrevista hecha a la Srta. Carmen Lecumberri, profesora de la Normal de Bilbao, en un programa dirigido por el R. P. Ignacio Arregui. El tema de dicha entrevista había sido el método de educación musical infantil *Orff-Schulwerk*.

ARANZAZU se congratula con los eficientes directores y realizadores de Radio Loyola, a los que felicita por su constante superación. En el próximo número de la revista ofreceremos a los lectores una amplia información sobre la labor tenaz y fecunda de esta muy popular emisora.

Zorionak, bihotzez!